

BAPTISTA SPAGNOLI DOHATSUA (MANTOVARRA)

Adiskide on baten bidez izan dut lantxo hau moldatzeko eragina. Antonio Unzuetak, Euskal Herriko Karmeldarren artxibozain eta historialariak, jarri zituen, egun batez, nire eskuetan Baptista Spagnoli Dohatsuari eskainitako euskal olerkiak. Hauek, ustez ezezagunak zirela eta, Mantovar Dohatsua nor zen azaldu ondoren, *Karmel* aldizkarian argitaratzeko aholkua eman zidan. Halaxe egin nahi dut une honetan, bide batez, albiste eta iradokizunaren emaileari esker ona agertuz.

Hona zertaz den albiste eta lantxo honen muina:

XIX. mendean *REVISTA CARMELITANA* izeneko aldizkaria argitaratzen zuten Bartzelonako Karmeldar Oinetakodunek. Karmengo Amaren Hirugarren Ordena eta Kofradiaren hileroko Buletina zen, zehazki esanda, argitalpen hau. 1890eko maiatzaren 25ekoa da esku artean dudana; XIV. Urtea eta 170. Zenbakia dela jartzen du goian. Honela hasten da hitzez hitz:

“Número Extraordinario en veneración del Beato Bautista Mantuano, Prior General de la Orden de Nuestra Señora del Carmen, llamado *El Príncipe de los Poetas Cristianos*”.

Haren bizitzako argibideak

Nor zen Baptista Spagnoli Dohatsua? *Karmel* aldizkariaren irakurleentzat argi dezagun pixka bat haren izenari dagokiona.

“Baptista Spagnoli” eta “Bautista Mantuano” izenez deitu izan zaio. Karmeldarrek beren santu eta dohatsuentzat erabiltzen dituzten liturgi liburu berezietan “Spagnoli” agertzen da.

Mantovan, Virgilioren hirian, jaio zen 1447ko apirilaren 17an. Haren gurasoak Pedro Modover eta Constancia Maggi ziren. Aita Espainiako Cordobako semea zen eta ama Italiako Bresziakoa. Aitak, Italian bizitzen jarri zenean, “Spagnoli” deitura hartu zuen.

Mantovan, bera jaio zen hirian, egin zituen lehen ikasketak, eta geroago Padovan. 1463an, 16 urte zituela, Karmeldarren Ordenan sartzea erabaki zuen. Ikasketa eta ingurune intelektualean ustekabeen harrapatu zituen guztiak, gazte-gaztetarik ospe handia lortu baitzuen bere ikaskide eta irakasleen artean. Zientzia eta arteetan etorkizun ezin hobea utzirik, bere aitaren aurrean karmeldar sartzeko erabakia zuritzearren, *De Vita Beata* idatzi zuen, Ciceron-en estiloan, diotenez. 16 urte baizik ez zituen hori idatzi zuenean. Karmeldarren Mantovako Kongregazioan sartu zen Ferraran, bertan profesa eginik 1464an. 1469an batxiler maila lortu zuen eta 1475ean teologia-ko maisu egin zen Boloniako unibertsitatean.

Bere gaitasun berdingabeengatik, nagusien konfiantza eta estimua lortu zituen. 1466an, hogeitau urte ere bete gabe, Bresziako kapituluan hitzaldi ofiziala egiteko agindua hartu zuen. 1471n Parmako nagusi izendatua izan zen eta 1479an Mantovako nagusi. 1483an maila goreneko kargua eman zioten: Kongregazioko Bikario Nagusi. Beste bost aldiz izan zuen kargu hori eta, azkenek, Ordena osoko Jeneral izendatu zuten 1513an.

Haren jarduera ez zen Ordena barruko zereginetara mugatu. Beste ardura batzuk ere eman zizkioten; esaterako, 1481ean, Bolonian ikasketa-arduraduna zela, Jorge Novararen aurkako auzian batzordekide izan zen. 1513an Latrango V. Kontzilio Ekumenikoan esku hartu zuen gonbidatu gisa. 1515ean Leon X.ak bakezko bitartekari-zeregina eman zion Frantziako erregearen eta Milango dukearen artean.

POESÍA ORIGINAL
DEL
BEATO BAUTISTA MANTUANO,
CARMELITA.

Supplicatio ad Beatissimam Virginem Mariam.

Gloria terrarum, Cœli Regina, Tonantis
Mater, in humanis portus et aura malis,
Cum peccata miser tristi mea mente revolve,
Sistere conspectus me pudet ante tuos.
Nam tu labe cares omni, tu mundior auro,
Quod decies acri torruit igne faber.
Ast ego tabificis Erebi sum perditus undis,
Et mea sunt stygio sordida membra luto.
Sed quoties recolo tua tam clementia corda,
Sollicitat paulo me minus iste pudor.
Spes mihi te spondet placidam mitemque futuram,
Atque tuam nobis pollicitatur opem.
Ergo, meas sordes non aversata, favorem
Fer mihi Progeniem jugiter ante Tuam.
Comprime baccantes bona per mortalia sensus,
In scelus oppressa qui ratione ruunt.
Fac sapiant ori cœlestia pabula nostro,
Fac mea divinus pectora pungat amor.
Fac habeam terras odio, fac tartara vincam
Cum phlegethonteos concitat ira deos.
Esto mihi custos inter discrimina vitæ,
Nec manus in corpus sæviat ulla meum.
Te duce sit mihi fas in olympica regna reverti,
Et tibi discusso ponere vota iugo.
Te Tua Progenies interveniente gubernet
Rebus in adversis meque meamque domum.

Baina bere Ordenaren eta Elizaren alde jarri zuen aparteko gaitasun literarioaren emankortasuna.

Karmeldarren Ordenari zion maitasunaren lekukotasunik handiena *Apologia pro Ordine Carmelitarum* (Karmeldarren Ordenaren Apologia) obran agertzen du. Bestalde, Elizarenenganako leialtasun edo atxikimendua Inozentzio VIII., Julio II. eta Leon X.aren ohoretan eginiko poemez gain, kristauen artean biziki sentitzen ziren arazoez burututako idazkietan erakusten du. Gaur egun, Vatikanoko II. Kontzilioaren ondoren bereziki, nekez uler daiteke kristau santu batek gai horretaz idazteko lum hartzea, gerra erlijiosorako deia baita argi eta garbi; hau da, *Obiurgatio cum exhortatione ad capienda arma contra infideles, ad reges et principes christianos* (Errege eta printze kristauei fedegabeen kontra armak hartzeko deia).

Garai hartan nazioa asaldatzen zuten hainbat gertaerak ere zirrara bizia eragiten zioten bere espiritu finean. Horren lekuko dira idatzi zituen hainbat bertso; esaterako, *Pro pacata Italia post bellum ferrariense* (Ferrarako gerraren ondoren bakan den Italiari), *In Romam bellis tumultuantem* (Gerrateetan nahasiriko Erromaren kontra), *De bello Veneto Comentariorum* (Veneziako gerraz iruzkin laburra), *Trophaeum pro Gallis expulsiis pro duce Mantuae* (Mantovako dukeak kanpora bota zituen galiarrengatik garaipen-kantua), eta batez ere *De calamitatibus temporum* (Garaiko zoritxarrak). Obra hau, 1489-1510 artean soilik, hogeita hamar bat bider berrargitaratu zen. Horrek guztiorrek erakusten du gure dohatsu honek, gorte askotan ziren interes politikoen ikuspegi mugatua izan arren eta orduko humanisten estilo berezian idatzi arren, biziki sentitzen zuela Italiak urte haietan sufritzen zuen drama.

Garai hartako pertsona ospetsu askorekin izan zituen harremanak, esaterako, Juan Pico de la Mirándola, Pomponio Leto, Giovanni Pontano, Felipe Beroaldo, Juan Sabbadino degli Arienti, Andres Mantegna eta abarrekin. Hori kultura arloan zuen izen onaren lekuko da.

Humanisten mugimenduan ospetsuenetakoa izan zen, batez ere bere *Bucolica seu adolescentia in decem aeglogas divisa* (Bukolikoa edo nerabezaroa hamar eglogatan bereizia) obra-ren oihartzunagatik. 150 argitaraldi baino gehiago egin ziren, eta horietatik 100 baino gehiago XVI. mendean. Hori dela eta, bere garaikoek, Rotterdamgo Erasmo barne, "Virgilio Kristaua" deitu zioten.

Honen poeta-lanaren oihartzuna Shakespeare idazlearenganaino iritsi zen, gure dohatsuaren bertso batzuk bere *Love's Labour's Lost* (Maitasunaren oinaze hutsak) obran sartu baitzuten. Literatura ingelesean: Alexander Barclay-k haren eglogen parafasia egin zuen; Edmund Spenser-er imitatu egin zuen *The Shepheardes Calender*-en (Hamabi artzain-eglogak); eta John Milton-ek *Ode on the Morning of Christ's Nativity* (Oda Kristoren jaiotzako goizean) lanean.

Izan zituen kargu handiak eta literaturako jarduera biziak ez zitzaizkion eragozpen gertatu bere barne-bizitzazko karmeldar bidean. Andre Mariaganako debozio samurrekoa izan genuen. Haren idazlanetan etengabe ageri da bakardaderako joera eta Jainkoaren presentziaren nahia. Andre Mariaren omenez oda batzuk eta poema bat idatzi zituen hiru liburukitan: *Parthenices Mariana* (Ama Birjinari Kantuak), Europa osoan laster zabaldu zena; izan ere, hirurogeita hamar argitaraldi izan zituen, hamabost XV. mendean eta berrogeita hamar, gutxi gorabehera, XVI.enean.

Katalina, Margarita, Ageda, Luzia, Apolonia eta Zezilia martiri santuen omenez idatzi zituen sei kantuak eta Joan Bataiatzailearen, San Jurgi eta beste santu batzuen ohoretan idatzitako poemek, *De sacris diebus* (Egun sakratuak) izeneko hamabi liburuekin batera, garbi ematen dute haren erlijiozko debozioaren berri.

Zirrara bizia eragin zion kleroan eta herrian ustelkeria gehiagora zihoala sumatzeak. Erreforma-gogoia piztu zitzaion eta hala adierazi zuen, bai zuzenki gai horretaz burututako lan

literarioetan, esaterako, *De moribus curiae romanae* (Erromako kuriaren ohiturak) izeneko IX. eglogan, eta bai Vatikanoko basilikan bertan, Inozentzio VIII.aren eta kardinalen aurrean egin zuen hitzaldi sutsu bizi-bizian ere. Esaldi haietako batzuetan hain kritika gogorra egiten zen, non Lutero berberak ere haietan hartu baitzuen abiapuntua, beste zenbaitetan bezala, Erromaren aurka jotzeko. Hain zuzen ere, protestanteek, 1571n Nuremberg-en argitaraturiko *Antologia... sententiosa collecta ex operibus Baptistae Mantuani* (B. Mantovarraren idazlanetatik bildutako esaldien antologia) liburuan, erreformatzaile alemaniarren aitzindaritzat hartzen dute karmeldarra. Alabaina, horretaz, Baptista Spagnoli-ren biografoak honela ihardesten die: erabateko aldea dago, ordea, Mantovar dohatsuaren espirituaren eta Luteroren espirituaren artean, hark Elizaren barru-barrutik eragin nahi baitzuen erreforma; Luterok, berriz, benetako zisma sortu zuen Elizan.

Baptista Spagnoli dohatsua 1516ko martxoaren 20an hil zen jaio zen hirian bertan. Harenganako debozioa berehala piztu zen Kristau-herrian eta Leon XIII.ak, hasieratik "dohatsu" deitzen zion kristau-herriaren benerezioa berretsirik, dohatsu izendatu zuen 1885eko abenduaren 17an. Liturgian apirilaren 17an ospatzen da haren oroipena.

Hona Baptista Spagnoliren bizitza eta lanaren ikuspegi labur eta arina.

Olerkiak

Zer da Bartzelonako *Revista Carmelitanak* dakarrena? Gure karmeldar poeta dohatsuari hainbat hizkuntzatan eskainitako omenaldia. Omenaldi hori osatzen duten konposizioak odak, poemak, olerkiak, sonetoak dira; horien artean euskarazko olerki ezezagunak daude eta horrek eraginda idatzi dugu lan-txo hau. Egin dezagun lehenik konposizio horien aipamena:

- Baptista dohatsuaren poema originala

- Latinezko oda: Nicolaus Casaroma
- Gaztelaniazko sonetoa: Adelardo de Reyes
- Katalanezko poesia zazpi ahapalditan: Ramon Bonet
- Euskarazko olerkia hamaika ahapalditan: Balbino Garita-Onandia
- Euskarazko hamalauduna (sonetoa): Felipe Arrese-Beitia
- Portugesezko poesia hamasei ahapalditan: Illidio J.V. da Costa.

Euskarazko testuek gaztelaniazko itzulpen libre eta erdi literala dute hurrenez hurren ondoren. Gainerakoek, hizkuntza erromanikoak izanik, ez dute itzulpenik. *Karmel* aldizkarian Baptista Spagnoli Dohatsuaren poema originala argitaratzen dugu eta bi euskarazkoak: olerkia eta hamalauduna. 11 ahapalditan idatzitako olerkien egilea, Balbino Garita-Onandia Durangoko semea zen, apaiza; A. Jose Antonio Arana jesulagunarekin eta Damaso Bernaolarekin hasi zen euskara lantzen. Liburu erlijiosoak agertzen dira berak idatzitakoen artean, esaterako, *Erregezko Apostoladutzia* (Tolosa, 1889); *Jesus Sacramentaduari, Ama doncella Mariari eta Aita San Jose Gloriosuari visitaac illaren egun guztietaraco* (1893); liburu hau itzulpena da eta bigarren partea itzuli zuen honek, lehenengoa Aita Uriartek egin baita; 1900. urtean Martin Arzadunen dotrina argitaratu zuen, eguneraturik eta zerbait gehiturik; 1908an "Vademecun Erdu neugaz", izenburu luze hau dakarrela: *Sacramentu Santuac emon ta ondo ilten gueixuari lagunduteco escu-liburua ipiñi dau Biscaico eusqueras*.

Baina bertsozko lanetan dirudi, batez ere, trebea; Julen Urkizaren *Aldizkari eta Egunkarietako Euskal Bertso eta Olerkien Bibliografia* liburuan 19 bertso-lan ageri dira; horien artean, hain ospetsuak diren *Mesias sarritan agindu zana* eta *Belengo Portalian* Gabon-kantaren bertsoak.

Felipe Arrese-Beitia guztiz ezaguna da euskal literaturan. Haren olerkien hainbat argitaraldi egin dira. 1900. urtean *Ama Euskeriaren Liburu Kantaria* argitaratu zenetik, argitaraldi ugari

izan dituzte haren lanek; guretzat ezagunena, 1956an Euskaltzaindiaren ardurapean A. Santi Onaindiak egindakoa izan da; oraintsu, ia garai berean, agertu dira beste bi argitalpen eder: bata, Itziar Urrutia Zorrozuak bi liburukitan egina: *Felipe Arrese ta Beitia: idazlan guztiak* (Bilbao, 1999); eta bestea. Hauek guztiak arakatu ondoren, ez dugu inon aurkitu Bartzelonako *REVISTA CARMELITANA* honetan datorren "Amalauduna"ren arrastorik. Beraz, ez dugu hartaz besterik esango.

Testuak

MANTUA-KO BAUTISTA DOATSUARI.

I.

Dakust argitsu, distiaduraz,
Izar eder bat zeruan,
Bere argiyaz gu gaukazala
Pozez beterik munduan:
Bautista dontsu da izar eder au,
Gizondu zana Mantuan,
Ta oiñ zeruan Karmengo Amak
Daukana bere pekuan.

II.

Urra ta olesak zuri, Mantua,
Seme argitsuen erriya!
Urra ta olesak, bai-bere zuri,
Karmengo lorategiya!
Dagualako zeru altuan
Gozetan zoragarriya,
Bautista dontsu eta santua
Zuben seme seme chit argiya.

III.

Galaitasunaz dagoz zeruak
Milloika-izarrez argirik,
Alan zengozan santutasunaz
Eta graziyaz bizirik;
Lorategi bat daguan gisan
Lora usaintsuz beterik,
Zure biotza eguan bardin
Birtute ederrez jantzirik.

IV.

Larrosa gorri zoragarriya
Karidadiaz sutua,
Biotz zallenak samurtuteko
Asko zana ta naikua,
Zeunkazun zukan, zindubalako
Maitetu lagun urkua,
Baña barruko gar goriyenaz
Guztien gañez Jainkua.

V.

Liriyo zuri kastidadeko
Ezaugarririk onena,
Zerutarretan ta Ama Birjiñan
Beti da chit bikaiñena;
Josirik zeunkan ondo ariman,
Zalako zure maitena,
Ta agertzen zara karmelotarren
Lora gozatsu goiyena.

VI.

Biol polita eta umillena
Lora guztien artian,
Ereñ ta ernetan dana bakarrik
Zeruko jardñ maitian,

Zuregan beti apain eguan
 Bere edertasun betian,
 Zeunkazulako zeure burua
 Gizon guztien menpian.

VII.

Zoragarriya, Bautista andiya,
 Ziñian chit umetatik:
 Donzella Amaren maitetasunaz
 Gartuten zara bertatik;
 Zure kantuak, zure soñuak
 Isurtzen espanetatik
 Erregiñ orri, nok irabazi
 Gizon ta aingeruetatik?

VIII.

Berba neurtuta neurtugabian
 Zure lumaren eguak
 Zur ta arriturik euki zituan
 Jakitun goiyenenkuak;
 Zuri entzuten egozan pozik
 Ikasol Erromakuak,
 Zuri entzuten Karmelo seme
 Zure anaiya zintsuak.

IX.

Zorionian juan ziñian
 Loreto-ko eche santura
 Jainkoak berak gizonduko
 Aututu eban lekura:
 Jainkozko Amaren goiandadiak
 Etozen zure burura;
 Eta andik lumas goiande orrek
 Zabaltzen dozuz mundura.

X.

Mundua mundu dirauan arte,
Eta eguzkiya jiretan
Izar artian dabillen ainbat
Zeru urdiñ zabal goiyetan,
Kristiñau danak obetuteko
Negarrezko ibar onetan,
Irakasterik onena dauke
Zure liburu danetan.

XI.

Dantzuzuz oraiñ, Done Bautista,
Zagozan jargoi altutik,
Ama chit maite Loretokuak
Isuri daizan zerutik,
Doe ta grazi ugariyenak
Eruan gaizan eskutik,
Zure ondora ta beragana
Bizi garian ermutik.

Balbino Garita-Onandia.

BATISTA DOATSU BIRJILIO KRISTINAUARI

AMALAUDUNA

Arroak asko badira bere loren artean,
Agertu gura dabenak leku zabaletan,
Bioletea, guztiz sarritan, da bedarpean,
Erdi-estaldu egiñik umill aurkietan.
Eta bein baten loren erregek ikusitean,
Lotsaz legeche gorderik zala ezkutetan,
Esaten deuta: "neure emazte aurrerantzean

Oh! bioleta, gura dot izan zu zaitezan".
Lora umill au, oi dan legeche, onvidadeak,
Batista, ziñan arduraz nekau, gorde guraz;
Aita Santuak jakiñik baña, zeunkazan doiak,
Echaken aztu zer egiñ zure zurtasunaz;
Pillartzat autu egiñ zinduzan, bai, Eleiseak;
Mantuak esan: "Birjilio bi ditut zugaz".

Felipe Arrese-Beitia

Ez dugu bertso eta olerki hauen iritzirik emango hemen, ez hizkuntzari dagokion aldetik, ezta literatura eta bertsogintzari dagokionetik ere. Begirada arina egin nahi izan diogu Baptista Spagnoli Dohatsuari eta, batez ere, haren omenez idatzitako euskal bertso ezezagunak agertzea izan dugu helburu.

Luis Baraiazarra Txertudi